

Kiroleskola

Etengabeko Prestakuntza Programa

2015eko 1. Seihilekoa

Escuela Vasca del Deporte

Programa de Formación Continua

1º Semestre de 2015



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Aurkibidea

Índice



1

OHARRAK



- › Programa hau Kirolaren Euskal Eskolak (Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza) antolatutako edo lagundutako prestakuntza-jardueri dagokie.
- › Programak etengabeko prestakuntzarako jarduerak, hau da, prestakuntza-jarduera ez formalak ditu. Bertaratze-ziurtagiria emango zaie hala eskatzen dutenei.
- › Prestakuntza-jarduera bakoitzaren aurretik, informazio-dokumentu bat egingo da eta bertan zehaztuko da jardueraren informazio osagarria: edukiak, ordutegiak, hizlariak, etab.
- › Jardueren prozedurari eta izena emateko epeari buruzko informazioa jarduera bakoitzaren informazio-dokumentuaren bitartez ere emango da.
- › Programa honek barne hartzen dituen edukiak behin-behinekoak dira. Behin betiko edukiak jarduera bakoitzaren informazio-dokumentuan jasotakoak izango dira.
- › Jarduera bakoitzaren berezko informazio-dokumentua Kirolaren Euskal Eskolaren albiste-buletina jasotzeko alta egin duten kontaktuei helaraziko zaie. Alta egiteko, egin klik [hemen](#).
- › Kirolaren Euskal Eskolak, uneko beharrizan edota aukeren arabera, beste jarduera batzuk antola ditzake seihilekoan zehar, programa honetan ezarritakoez gain.
- › Beste erakunde batzuek EAEn garatzen dituzten bestelako jardueren gaineko informazioa jaso nahi baldin baduzu, Kirolaren Euskal Eskolaren webgunean kontsulta ditzakezu esteka honetan: [esteka](#)

» KIROL ERRENDIMENDUARI APLIKATUTAKO TEKNOLOGIAK

» JARDUERA-MOTA

Jardunaldia

» KIROL-ESPARRUA

Entrenamendua. Errendimendua

» HARTZAILEAK

Teknikariak, entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak, ariketa fisikoko eta kiroleko profesionalak.

» DATA

Martxoaren 13

» TOKIA

Getxo

» HIZKUNTZA

Gaztelania

» ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Kiroleskola

» ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK


CPT Fadura HTZ - Basque Team



» ZIOEN AZALPENA

» Kirolari orok hobetu nahi ditu bere markak, denborak eta errendimendua. Dena den, hori oso zaila da lortzen, baldin eta entrenatzeko sistema edo metodo berberei eusten bazaie beti. Kirol-teknikariek etengabe eguneratu behar dituzte beren ezagutzak, kirolariei pizgarri berriak emateko edo haiek entrenatzeko modu berri eta hobeen berri izateko.

» Teknologia berriei esker, datu eta informazio asko lor daiteke, eta horri esker, teknikariek aukera dute beren kirolarien entrenamendua eraginkortasun handiagoz planifikatzeko eta egiteko. Jardunaldian zehar, zenbait tresnak dituzten aukerak azalduko ditugu (potentziometroak, gps-a, software-programak, eta abar).



UDALERRIETAKO KIROL POLITIKEN X. TOPAKETA: “KIROLERAKO HABITAT EGOKIAK”



» JARDUERA-MOTA

Jardunaldia

» KIROL-ESPARRUA

Kudeaketa

» HARTZAILEAK

Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako kirol-kudeatzaileak, kirol-teknikariak eta arduradun politikoak

» DATA

Martxoaren 26a eta 27a

» TOKIA

Irun

» HIZKUNTZA

Gaztelania

» ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Kiroleskola

» ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

KAIT-Kirol Arlorako Iritzi Taldea, Irungo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kirolaren Euskal Eskola (Eusko Jaurlaritza)

» ZIOEN AZALPENA

» Nahiz eta azken hamarkadetan gero eta jende gehiagok kirola egin, jarduera fisikorik erregularitasunez egiten ez duten biztanle asko daude oraindik ere. Biztanleria aktiboko tasarik handienak lortze aldera, beharrezkoa da pertsonen garapen aktiboa eragiten duten faktoreak azpimarratzea (sozialak, indibidualak eta ingurune fisikokoak). Tokiko esparrua funtsezkoa da herritarrek jarduera fisikoa egitearen aldeko baldintzak sortzeko.

» “Kirolerako habitatak” izenburupean, KAITen Kirol Politiken X. Topaketan, pertsonen tokiko/udal-esparruan jarduera fisikoa egitearen aldeko habitatak sor ditzaketen politika eta irizpide eraginkorretan sakondu nahi da. Horretarako, hiru esparru bereizten ditugu: hiriko plangintza eta diseinua (Urbs), jarduera fisikoa tokiko ingurunean dinamizatzea (civitas) eta erregulazioa eta administrazioa (polis).

4

» KONTRATAZIOEN ARAZOA OINARRIZKO KIROLEAN. LAN-ALA BOLUNTARIOTZA-HARREMANAK?

» JARDUERA-MOTA

Informazio-saioak

» KIROL-ESPARRUA

Kudeaketa

» HARTZAILEAK

Kirol-federazioetako, kirol-klub eta -elkarteetako, eta ikastetxeetako zuzendari, kudeatzaile eta koordinatzaileak

» DATA

Zehaztu gabe

» TOKIA

Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Arrasate

» HIZKUNTZA

Gaztelania eta Euskara

» ERAKUNDE ANTOLATZAILEAK

Kiroleskola, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

» ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak

» ZIOEN AZALPENAK

» Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak zenbait ikuskapen egin zituen iaz, ikastetxeetako eskolaz kanpoko jardueretako eta kirol-jardueretako monitoreen lan-egoera egiaztatzeko eta, zegokionean, erregularizatzeko.

» Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak eta Kirol Kontseilu Gorenak txosten bat argitaratu zuten, kirol-klub eta elkarteetako entrenatzaile eta monitoreen lan-erregimena aztertze aldera. Ildo horretatik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak lan-ikuskapenak kirol-erakundeetara hedatzea aurreikusi du. Datozen hilabeteetan egingo ditu ikuskapenak.

» Informazio-saiotik, beraz, hau azalduko da: lan- edo boluntariotzar-kontratuak ezartzeko irizpideak; kirol-erakundeek indarreko lan-legedia betetzeko har ditzaketen neurriak edo konponbideak, eta azkenik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak datozen hilabeteetarako izango duen jardueraprozedura.



» KIROL FEDERAZIOEN KUDEAKETARI BURUZKO II. JARDUNALDIAK

» JARDUERA-MOTA

Jardunaldiak

» KIROL-ESPARRUA

Kudeaketa

» HARTZAILEAK

Kirol-federazioetako eta bertako klubetako gerenteak eta zuzendariak

» DATA

Apirilaren 17a eta 18a

» TOKIA

Gasteiz

» HIZKUNTZA

Gaztelania

» ERAKUNDE ANTOLATZAILEAK

Kiroleskola, Arabako Foru Aldundia, Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB), Arabako Kirol Federazioen Elkarte (AKFE)

» ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

ASFEDEBI eta AFEDEGI



» ZIOEN AZALPENA

» Kirol Federazioen Kudeaketari buruzko Jardunaldiek helburutzat dute Euskadiko eta lurraldeko kirol-federazioetako agintariak urtean behin biltzea, federazioen funtzionamenduari bete-betean eragiten dioten gaurkotasuneko gaiak jorra ditzaten, eta horri esker, federazioen kudeaketa hobetzeko. Informatu, prestakuntza eman eta eztabaida piztu nahi da.

» Horrenbestez, II. Jardunaldi hauetan, hauek izango dira gai horietako batzuk: lizentzia bakar polemikoa, kirol-arbitrajeak ematen dizkigun aukerak, emakume gehiagok kirola egiteko planak, etortzekoa den kirol lanbideen legea, eta oinarrizko kirolean egiten ari diren lan-ikuskapenak zer ondorio dituzten federazioetan.

6

JARDUERA FISIKOA, GAIXOTASUN KRONIKOEN PREBENTZIORAKO ETA TRATAMENDURAKO ARDATZA: BIZITZA ESTILOAREN ALDAKETA

› JARDUERA-MOTA

Jardunaldia

› KIROL-ESPARRUA

Osasuna eta Kirola

› HARTZAILEAK

Jarduera fisikoaren, nutrizioaren eta osasunaren espezialistak eta profesionalak

› DATA

Maiatzaren 11a

› TOKIA

Gasteiz

› HIZKUNTZA

Gaztelania

› ERAKUNDE ANTOLATZAILEAK

Kiroleskola – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)

› ZIOEN AZALPENA

- » Gaixotasun kronikoak komunikatu ezin diren gaixotasun bezala jotzen dira. Normalean, adin ertain batean sortzen dira, denbora luzez bizitza-estilo ez egokiak izan ostean: jarduera fisiko gutxi eta koipe saturatu, azukre eta gatz askoko dietak. Hala ere, orain, gaixotasun horien diagnostiko-adina nabarmen jaisten ari da, era arriskutsu batean. Hori horrela izanda, jarduera fisikoa gaixotasun kroniko horiek ekiditeko edo atzeratzeko lehentasunezko tratamendua da, bizitza-estiloaren beste aldaketa batzuekin batera.



7

ELITEKO KIROLARIEN BERREGOKITZE-EPEAK MINIMIZATZEA, LESIONATU ONDOREN



› JARDUERA-MOTA

Mintegia

› KIROL-ESPARRUA

Entrenamendua

› HARTZAILEAK

Teknikariak, entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak, ariketa fisikoko eta kiroleko profesionalak

› DATA

Ekainaren 12a eta 13a

› TOKIA

Getxo

› HIZKUNTZA

Gaztelania

› ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Kiroleskola

› ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

CPT Fadura HTZ – Basque Team

› ZIOEN AZALPENA

- » Prestakuntza fisikoaren eta kirol-berregokitzearen alorreko profesional garen aldetik, kirolarien errendimenduan eragin handia izan dezaketen lesioak ikusten ditugu, gero eta gehiago.
- » Ikusten denez, ez dago metodo homogeneo, sistematizatu eta arauturik ohiko eta ezohiko lesioak agertzen direnerako.

» DOPINAREN AURKAKO PREBENTZIOA

» JARDUERA-MOTA

Informazio-jardunaldiak

» KIROL-ESPARRUA

Osasuna - entrenamendua

» HARTZAILEAK

Kirol-federazioak eta probak antolatzen dituzten pertsonak (kirolariak, teknikariak eta entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak, fisioterapeutak, medikuak)

» ERAKUNDE ANTOLATZAILEAK

Kirolaren Euskal Eskola eta Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia (EJren Gazteria eta Kirol Zuzendaritza)

» ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

CPT Fadura HTZ – Basque Team

» AZALPENA

- » Kirolaren Euskal Eskolak eta Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak Euskadiko eta lurraldeko kirol-federazioei eta kirol-proben antolatzaileei aukera ematen diete kiroleko dopinaren aurkako prebentzioari buruzko doako informazio-hitzaldiak antolatzea eskatzeko.
- » Asko dira kirolari eta teknikariek dopinaren inguruan dituzten zalantzak. Informazio-jardunaldi hauetan zehar, zalantza horiek guztiak argitu nahi dira, baita kiroleko eragileak dopinaren prebentzioan kontzientziatu ere.
- » Kirol-federazioek eta -erakundeek hauek erabili ahal izango dituzte kirolari edota teknikariei dopinaren arriskuen berri emateko: kontzentrazioak, teknifikazioak, txapelketak, prestakuntza-ekintzak eta bestelako bilerak. Izan ere, askotan, dopina nahi gabe egiten da, zabarkeriaz (kutsatutako botika edo elikagaien bidez) edo araua ez ezagutzeagatik.
- » Kirol-federazioek eta -erakundeek data, lekua eta hizkuntza eskatu ahal izango dituzte, eta Kirolaren Euskal Eskolak eta Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak eskaera guztiei erantzungo diete, beren ahalmenen arabera. [Eskabidea](#).
- » Eskabidea helbide elektroniko honetara bidali behar da: kiroleskola@ej-gv.es. Informazio gehiagorako, deitu 944304867 telefono-zenbakira.
- » Kirolari eta teknikariek informazio gehiago lortzeko aplikazio edo webguneetara jotzen duten estekak:

- [AEPSAD - RINCÓN DEL DEPORTISTA](#)
- [NODOAPP APLIKAZIOA, kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoak kontsultatzeko](#)



9

3K PROGRAMA

» AZALPENA

3K PROGRAMA, kirol-erakundeen kudeaketa hobetzeko.

- » 3K Programa hiru foru-aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskaliten proiektu bat da. Haren helburua EAEko kirol-erakundeen kudeaketa maila hobetzea da, kudeaketa aurreratuko eredu baten bidez.
- » 3 urteko proiektua da, eta urte horietan, era praktiko batean prestakuntza-saioen/tailerren eta zenbait atazaren bidez, erakundeek beren indarguneei eta hobekuntza-arloei buruzko diagnostiko bat egiten dute, ikusitako hobekuntza-arlo horiei ekiteko lan-planak abiarazteko gerora. Azken batean, kirol-erakundeek kudeaketa aurreratu baten oinarrizko alderdiak eta jardunbide onak ezagutzea eta garatzea nahi da.
- » Programa osorik amaitzen duten erakundeek Konpromiso Diploma lortuko dute, aintzatespena ematen baitie euskal erakundeek, kudeaketa hobetzeko erreferentzia-esparru gisa Kudeaketa Aurreratuko Eredua erabili duten neurrian.
- » Programa 2006an martxan jarri zenetik, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako ia 200 kirol-erakundek hartu dute parte.
- » Proiektuari buruzko informazio gehiago lortzeko, sakatu hemen: [esteka](#)
- » 3K Programan osorik (3 urte) parte hartu eta izena eman nahi duten erakundeek dagokien foru-aldundiarekin jarri beharko dute harremanetan. Euskadiko kirol-federazioek, berriz, Kirolaren Euskal Eskolari jakinarazi beharko diote.
- » Institutio antolatzaileek proiektua guztiz diru laguntzen dute, baina behar-beharrezkoa da erakundeek osorik amaitzeko konpromisoa hartzea.

PRESTAKUNTZA-TAILERRAK

- » Aurten, eta berritasun gisa, 3K Programan ez dauden edo dagoeneko amaitu duten kirol-erakundeek, interesa badute, aukera izango dute 2. eta 3. urteetako tailerretan parte hartzeko. Hona hemen tailerren zerrenda:
 - » Goazen antolatzaera gure kirol erakundea

- » Pertsonak. Kirol erakunde baten balioa
- » Bezeroak kirolean
- » Kanpoko komunikazioa kirol erakundeetan
- » Emaizten kudeaketa kirol erakundeetan
- » EAEko erakundeetarako kudeaketa aurreratuaren eredu berria
- » Tailer bakoitzaren hasiera baino lehen informazio-orria luzatuko da. Horretan izen-emateen irizpideak eta epeak aditzera emango dira.
- » 3K Programan ez dauden erakundeek tailerren kostea ordaindu beharko dute.



» JARDUERA-MOTA

Ikastaroa/Tailerak

» KIROL-ESPARRUA

Kudeaketa

» HARTZAILEAK


Kirol-federazioak, kirol-klubak eta -elkarteak, ikastetxeak, guraso-elkarteak, udaletako kirol-departamentuak edo -institutuak, kirol-enpresak, kirol-instalazioak, bestelako kirol-erakundeak

» ERAKUNDE ANTOLATZAILEAK

Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskalit

» KIROLESKOLA SARE SOZIALETAN

- » Kiroleskolaren eta beste erakundeen jarduerak, ariketa fisikoa eta kirolaren inguruko azken artikulua eta ikerketak, liburu eta dokumentu digitalak doan edo informazioa jasotzeko albiste interesgarriak jasotzen lehena izan nahi baduzu, ez izan dudarik eta jarrai itzazu gure FACEBOOK eta TWITTEReko kontuak.
- » GUZTIAREN BERRI IZANGO DUZU!



- » Egin klik FACEBOOK eta TWITTEReko irudien gainean eta begira itzazu gure profilak!

1

OBSERVACIONES



- › El presente programa corresponde a proyectos o actividades formativas organizadas o coorganizadas por la Escuela Vasca del Deporte (Dirección de Juventud y Deportes del Gobierno Vasco) o actividades en las que colabora.
- › El programa incluye actividades de formación continua, actividades de formación no formal. A las personas que así lo soliciten se les entregará un certificado de asistencia.
- › Previamente a cada una de las acciones formativas, se difundirá un documento con información adicional: contenidos, horarios, ponentes.
- › La información relativa al procedimiento y el plazo de inscripción de las actividades se ofrecerá también a través del documento informativo individual de cada actividad.
- › La información expuesta en el presente programa es de carácter provisional. Los contenidos definitivos se incorporarán en el documento informativo de cada actividad.
- › El documento informativo individual de cada acción formativa será difundido entre aquellos contactos que estén dados de alta en la lista de distribución del boletín informativo de la Escuela Vasca del Deporte. Para darse de alta, clicar [aquí](#).
- › La Escuela Vasca del Deporte, en función de las necesidades y/u oportunidades del momento, podrá organizar a lo largo del semestre otras actividades formativas al margen de las establecidas en el presente programa.
- › Para informarse de otras actividades formativas que desarrollan en la CAPV otras entidades pueden acceder de forma permanente al siguiente enlace de la página web de la Escuela Vasca del Deporte: [enlace](#).

» TECNOLOGÍAS APLICADAS AL RENDIMIENTO DEPORTIVO

» TIPO DE ACTIVIDAD

Jornada

» LUGAR

Getxo

» ÁMBITO DEL DEPORTE

Entrenamiento. Rendimiento

» IDIOMA

Castellano

» DESTINATARIOS/AS

Técnicos/as y entrenadores/as, preparadores/as físicos, profesionales dedicados al deporte y a la actividad física.

» ENTIDAD ORGANIZADORA

Kiroleskola

» ENTIDADES COLABORADORAS

CPT Fadura – Basque Team

» FECHA


13 de marzo



» EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

» Todo/a deportista desea mejorar sus marcas, sus tiempos, su rendimiento, pero esto difícilmente es posible desarrollando continuamente los mismos sistemas o métodos de entrenamiento. Los y las técnicos deportivos han de estar en constante actualización para poder ofrecer nuevos estímulos o nuevas y mejores formas de entrenar a sus deportistas.

» Las nuevas tecnologías están permitiendo la obtención de datos e información que permite a los técnicos/as planificar y ejecutar el entrenamiento de sus deportistas de una forma más eficaz. A lo largo de la presente jornada se expondrán las posibilidades que nos ofrecen herramientas como los potenciómetros, los gps, los programas de software, etc.



X ENCUENTROS DE POLÍTICAS DEPORTIVAS EN LOS MUNICIPIOS: “HÁBITATS PARA EL DEPORTE”



» TIPO DE ACTIVIDAD

Jornadas

» ÁMBITO DEL DEPORTE

Gestión

» DESTINATARIOS/AS

Gestores/as deportivos/as, técnicos/as y responsables políticos/as vinculados a la actividad física y el deporte.

» FECHA

26 y 27 de marzo

» LUGAR

Irun

» IDIOMA

Castellano

» ENTIDADES ORGANIZADORAS

KAIT-Asociación Vasca de Gestores del Deporte, Ayuntamiento de Irun, Diputación Foral de Gipuzkoa, Escuela Vasca del Deporte (Gobierno Vasco)

» EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

- » A pesar de la extensión de la práctica deportiva a lo largo de las pasadas décadas, existen aún amplias bolsas de población que no realiza una actividad física regular. Para alcanzar cotas más elevadas de población activa, resulta necesario incidir sobre los factores sociales, individuales y del entorno físico que influyen en el desenvolvimiento activo de las personas. El ámbito local resulta clave para generar las condiciones favorables a la práctica de actividad física de la población.
- » Bajo la denominación “Hábitats para el Deporte”, los X Encuentros de Políticas Deportivas de KAIT quieren profundizar en la identificación y gestión de las políticas y criterios efectivos en generar hábitats favorables para la actividad física de las personas en el marco local/municipal. Identificamos para ello tres ámbitos: el planeamiento y diseño urbano (Urbs), la dinamización de la actividad física en el entorno local (civitas) y la regulación y administración (polis).

4

LA PROBLEMÁTICA DE LAS CONTRATACIONES EN EL DEPORTE BASE. ¿RELACIONES LABORALES O DE VOLUNTARIADO?

TIPO DE ACTIVIDAD

Sesiones informativas

ÁMBITO DEL DEPORTE

Gestión

DESTINATARIOS/AS

Directivos/as, gestores/as y coordinadores/as de federaciones deportivas, de clubs y agrupaciones deportivas, y de centros escolares

FECHA

Por determinar

LUGAR

Bilbao, Donostia, Vitoria-Gasteiz y Arrasate

IDIOMA

Castellano y Euskera

ENTIDADES ORGANIZADORAS

Kiroleskola, Diputación Foral de Álava, Diputación Foral de Bizkaia y Diputación Foral de Gipuzkoa

ENTIDADES COLABORADORAS

Inspección de Trabajo y Seguridad Social del Ministerio de Empleo y Seguridad Social

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

- » La Inspección de Trabajo y Seguridad Social realizó el pasado año una serie de inspecciones a fin de comprobar y, en su caso regularizar, la situación laboral de los monitores/as de las actividades extraescolares de los centros educativos, actividades deportivas incluidas.
- » Tras la publicación de un informe por parte del Ministerio de Empleo y Seguridad Social y del Consejo Superior de Deportes que analiza el régimen laboral aplicable a los/as entrenadores/as y monitores/as de los clubs y agrupaciones deportivas, la Inspección de Trabajo y Seguridad Social tiene previsto para los próximos meses la extensión de las inspecciones laborales a esta tipología de entidades deportivas.

- » En las presentes sesiones informativas se pretenden dar a conocer los criterios por lo que se establecen relaciones/contratos laborales o de voluntariado; las posibles medidas o soluciones que pueden adoptar las diferentes entidades deportivas para poder cumplir con la legislación laboral vigente; y, por último, el procedimiento de actuación de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social en esta materia para los siguientes meses.



II JORNADAS DE GESTIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS

» TIPO DE ACTIVIDAD

Jornadas

» ÁMBITO DEL DEPORTE

Gestión

» DESTINATARIOS/AS

Gerentes y directivos/as de federaciones deportivas y de los clubes que las conforman

» FECHA

17 y 18 de abril

» LUGAR

Vitoria-Gasteiz

» IDIOMA

Castellano

» ENTIDADES ORGANIZADORAS

Kiroleskola – Diputación Foral de Álava – Unión de Federaciones Deportivas Vascas (EKFB) – Asociación de Federaciones Deportivas Alavesas (AFDA)

» ENTIDADES COLABORADORAS

ASFEDEBI y AFEDEGI



» EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

» Las Jornadas de Gestión de Federaciones Deportivas pretenden ser un punto de encuentro anual de todos los y las dirigentes de las federaciones deportivas vascas y territoriales en la cuales se aborden temas de actualidad que afecten de lleno al funcionamiento de una federación y que permitan una mejor gestión de las mismas. Se pretende informar, formar y debatir.

» Así, en esta ocasión, la controvertida licencia única, las posibilidades que nos abre el arbitraje deportivo, los planes para una mayor incorporación de la mujer, la futura ley del acceso y ejercicio de las profesiones del deporte, o el cómo afectan a las federaciones las inspecciones laborales que se están desarrollando en el deporte base serán algunos de los temas de esta segunda edición.

6

» LA ACTIVIDAD FÍSICA COMO EJE EN LA PREVENCIÓN Y TRATAMIENTO DE LAS ENFERMEDADES CRÓNICAS: UN CAMBIO EN EL ESTILO DE VIDA

» TIPO DE ACTIVIDAD

Jornadas

» ÁMBITO DEL DEPORTE

Salud y deporte

» DESTINATARIOS/AS

Especialistas y profesionales de la actividad física, la nutrición y la salud

» FECHA

11 de mayo

» LUGAR

Vitoria-Gasteiz

» IDIOMA

Castellano

» ENTIDADES ORGANIZADORAS

Kiroleskola - Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte (UPV/EHU) del Deporte (Gobierno Vasco)

» EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

- » Las enfermedades crónicas a menudo se refieren como enfermedades no comunicables. Normalmente surgen a mediana edad después de largas exposiciones a estilos de vida no saludables que conllevan falta de actividad física y dietas ricas en grasas saturadas, azúcares y sal. Sin embargo, en la actualidad la edad del diagnóstico está descendiendo de forma peligrosa. La actividad física se considera tratamiento prioritario en la prevención o retraso de la mayoría de las enfermedades crónicas junto con cambios paralelos en estilo de vida.



MINIMIZAR LOS PLAZOS DE READAPTACIÓN TRAS LESIÓN CON DEPORTISTAS DE ÉLITE



› TIPO DE ACTIVIDAD

Seminario

› ÁMBITO DEL DEPORTE

Entrenamiento

› DESTINATARIOS/AS

Técnicos/as y entrenadores/as, preparadores/as físicos, profesionales dedicados al deporte y a la actividad física

› FECHA

12 y 13 de junio

› LUGAR

Getxo

› IDIOMA

Castellano

› ENTIDAD ORGANIZADORA

Kiroleskola

› ENTIDADES COLABORADORAS

CPT Fadura – Basque Team

› EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

- » Como actuales profesionales de la preparación física y readaptación en el deporte, observamos la existencia de un mayor número de lesiones que pueden llegar a condicionar de manera determinante el rendimiento del deportista.
- » Se observa la inexistencia de métodos homogéneos, sistematizados y regulados en el momento de la aparición de lesiones, tanto comunes como atípicas.

PREVENCIÓN CONTRA EL DOPAJE

TIPO DE ACTIVIDAD

Jornadas informativas

ÁMBITO DEL DEPORTE

Salud - entrenamiento

DESTINATARIOS/AS

Federaciones deportivas y organizadores de pruebas (deportistas, técnicos/as y entrenadores/as, preparadores/as físicos, fisioterapeutas, médicos)

ENTIDADES ORGANIZADORAS

Escuela Vasca del Deporte y Agencia Vasca Antidopaje
(Dirección de Juventud y Deportes del GV)

DESCRIPCIÓN

- » La Escuela Vasca del Deporte y la Agencia Vasca Antidopaje ponen a disposición de las federaciones deportivas (vascas y territoriales) y de organizadores de pruebas deportivas la posibilidad de solicitar la realización de charlas informativas gratuitas sobre la prevención del dopaje en el deporte.
- » Las federaciones o entidades deportivas podrán emplear las concentraciones, tecnificaciones, campeonatos, acciones formativas propias u otras reuniones para informar y prevenir a sus deportistas y/o técnicos/as del peligro y riesgos del dopaje, que en muchas ocasiones, se produce de forma involuntaria por negligencia (medicamentos o productos alimenticios contaminados) o desconocimiento de la normativa.
- » Son muchas las preguntas que deportistas y técnicos/as se hacen en torno al dopaje. A lo largo de las presentes jornadas informativas se pretende dar respuesta a todas estas dudas y concienciar a los agentes del deporte en la prevención del dopaje.
- » Las federaciones o entidades deportivas podrán solicitar la fecha, el lugar, y el idioma que deseen y la Escuela Vasca del Deporte y la Agencia Vasca Antidopaje tratarán, en la medida de las posibilidades, de satisfacer las solicitudes recibidas. [Solicitud.](#)
- » La solicitud deberá remitirse al siguiente correo electrónico: kiroleskola@ej-gv.es. Más información en el 944304867.
- » Enlaces a aplicaciones o páginas webs con más información relacionada para el deportista o técnico/a:

- [AEPSAD - RINCÓN DEL DEPORTISTA](#)
- [APLICACIÓN NODOPAPP para la consulta de sustancias y métodos prohibidos en el deporte](#)



PROGRAMA 3K

DESCRIPCIÓN

PROGRAMA 3K, para la mejora de la gestión de entidades deportivas

- » El Programa 3K es un proyecto de las tres diputaciones forales, el Gobierno Vasco y EUSKALIT, cuyo objetivo persigue la mejora de la gestión de organizaciones deportivas de la CAPV basándose en un modelo de gestión avanzada.



- » El programa consta de 3 años en los que se pretende que las entidades, de forma práctica a través de sesiones formativas/talleres y de la elaboración de una serie de tareas, realicen un diagnóstico en los que identifiquen sus puntos fuertes y sus áreas de mejora para, posteriormente, poner en marcha planes de trabajo que hagan frente a las áreas de mejora detectadas. En definitiva, se pretende que las organizaciones deportivas conozcan y desarrollen los aspectos y buenas prácticas fundamentales de una gestión “avanzada”.

- » Aquellas entidades que terminen el programa en su totalidad obtendrán el Diploma de Compromiso que tiene por objetivo el reconocer a las organizaciones vascas que utilizan el Modelo de Gestión Avanzada como marco de referencia para la mejora de su gestión.

- » Desde la puesta en marcha del proyecto en el año 2006 cerca de 200 entidades deportivas de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba han participado ya en el mismo.

- » Se puede obtener más información del proyecto en el siguiente enlace: [Más información.](#)

» Las entidades que deseen participar e inscribirse en el Programa 3K de forma completa (3 años) deberán ponerse en contacto con la diputación foral correspondiente, salvo las federaciones deportivas vascas que, en su caso, deberán comunicárselo a la Escuela Vasca del Deporte.

- » El programa está subvencionado en su totalidad por las instituciones organizadoras, si bien se precisa el compromiso de la entidad de finalización completa del mismo.

TALLERES FORMATIVOS

- » Este año, y como novedad, se abre la posibilidad de que las entidades deportivas que no estén incorporadas al Programa 3K o que ya lo hayan finalizado, y que, sin embargo, estén interesadas en alguno de los talleres de los años 2 y 3 tengan la posibilidad de realizarlo/s. La lista de talleres es la siguiente:

- » Vamos a organizar nuestra entidad deportiva
- » Personas. El gran valor de la entidad deportiva
- » Clientes en el deporte
- » La comunicación externa en las entidades deportivas
- » La gestión de los resultados de mi entidad
- » Nuevo modelo de gestión avanzada para entidades de la CAPV

- » Previamente al comienzo de cada uno de los talleres se remitirá un documento informativo en el que se incluirá la forma y plazos de inscripción.

- » Las entidades que no formen del Programa 3K tendrán que abonar el coste de los talleres.

TIPO DE ACTIVIDAD

Curso-Talleres

ÁMBITO DEL DEPORTE

Gestión

DESTINATARIOS/AS

Federaciones deportivas, clubes y agrupaciones deportivas, centros escolares, AMPAS, departamentos o institutos municipales de deporte, empresas o instalaciones deportivas, cualquier otro tipo de entidad deportiva


ENTIDADES ORGANIZADORAS

Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Diputación Foral de Bizkaia, Diputación Foral de Gipuzkoa y Euskalit

» KIROLESKOLA EN LAS REDES SOCIALES

» Si quieres recibir las actividades de Kiroleskola y de otras entidades antes que nadie, los últimos artículos e investigaciones del ámbito de la actividad física y el deporte, libros y documentos digitales gratuitos, leer noticias interesantes desde el punto de vista formativo... no lo dudes y síguenos en nuestras cuentas de FACEBOOK y TWITTER.

» ¡ÉNTERATE DE TODO!



» ¡Clicka en los iconos de FACEBOOK y TWITTER y, échale un vistazo a nuestras cuentas!